

UDAL ETA AUTONOMIA HAUTESKUNDEAK
2023KO MAIATZAK 28

HAUTESLE-ERROLDAK JENDAURREAN JARTZEA

Apirilaren 4ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, 80 zenbakikoan, 207/2023 Errege Dekretua argitaratu zen, apirilaren 3koa, 2023ko maiatzaren 28rako toki-hauteskundeetarako eta Ceuta eta Melillako batzarretarako deialdia egiten duena.

2023ko apirilaren 4an ezohiko izaeraz argitaratzen den Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 68 zenbakian, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaritzaren apirilaren 3ko 3/2023 Foru Dekretua jasotzen da, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako deialdia egiten duena, eta data hau jartzen du: 2023ko maiatzaren 28a.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/85 Lege Organikoaren 39.2 artikuluan (1/2003 Lege Organikoak aldatua) eta abenduaren 26ko 1799/2003 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, **hauteskunde-zerrendak APIRILAREN 10etik 17ra kontsultatu ahal izanen dira, biak barne**. Epe horretan interesdunek errolda-datuak kontsultatu ahal izanen dituzte eta, hala badagokio, horiei buruzko erreklamazioak egin ahal izanen dituzte.

Kontsultatu ahal izanen dira: udalerrian bizi diren espainiarren Errolda eta udalerrian bizi diren eta boto-eskubidea duten atzerritarren Errolda.

Kontsulta-zerbitzua baliabide informatikoen bidez egingen da, banaka, kontsulta eskatzen duen eta aldeztu aurretik identifikatu behar den pertsona bakoitzarentzat. Hauteskunde-araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 85.1 artikulua (NANa, titularraren argazkia agertzen den pasaporte edo gidabaimena, edo, gainera, atzerritarren kasuan, bizileku-txartela) bozketa-ekitaldirako adierazten dituenetako bat izan beharko du identifikazio-agiriak.

Hauteskunde-erroldak telematikoki kontsulta daitezke, honako hauen bidez:

- a. [INE-Egoitza Elektronikoa – Hautesle Erroldan izena emateko kontsulta](#)
- b. Tafallako Udalaren web orria:
<https://tramiteselectronicos.animsa.es/P3122700B/detallegenerico.aspx?tram=565&sec=1&nif=p3122700B%20i&idioma=2>



UDAL ETA AUTONOMIA HAUTESKUNDEAK
2023KO MAIATZAK 28

Era berean, Tafallako Udaleko Bulego Nagusira jo ahal izanen da ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 14:00etara (apirilaren 10, 15 eta 16an izan ezik), kontsulta telematikoa egiteko laguntza eskatzeko.

Apirilaren 10etik 17ra, biak barne, edozein pertsonak aurkeztu ahal izanen du bere zentsu-datuen gaineko erreklamazioa telematikoki:

- a) Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzaren aurrean, <https://sede.ine.gob.es/censoElectoralTramitesReclaEleWeb> (apirilaren 10etik aurrera eskuragarri) helbidean sartuz, edo
- b) Tafallako Udaleko Bulego Nagusian, astelehenetik ostiralera 08:30etik 14:00etara (apirilaren 10, 15 eta 16an izan ezik), ondoren Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzara bidaltzeko.

Epe horren barruan, edozein pertsonak aurkeztu ahal izanen dio erreklamazioa Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzari, bere errolda-datuei buruz. Dena den, datu pertsonaletan egindako akatsak zuzentzeari, barruti berean egindako helbide-aldaketei edo erreklamatzailerak barrutiko Erroldako ezein ataletan ez sartzeari buruzkoak baino ezin izanen dira kontuan hartu, nahiz eta horretarako eskubidea izan. Hautagai-zerrenden ordezkarietara hauteskunde-propagandaren posta-bidalketak egiteko ematen zaizkien hauteskunde-erroldako kopietan sartzearen aurka dauden hautesleen eskaerak ere aintzat hartuko dira. Deitutako hautaketarako ez dira kontuan hartuko hautesbarruti batetik bestera bizilekua aldatu dela adierazten dutenak. Aldaketa hori hauteskunde bakoitzerako errolda itxi ondoren egin da, eta bere eskubidea aurreko egoitzari dagokion atalean erabili beharko du.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Tafalla, 2023ko apirilaren 5a.- Alkatea, Jesús Arrizubieta Astiz